



FORO DE BARRIO
AUZO-EZTABAIDAGUNEA
2018
LEZKAIRU – SANTA MARÍA LA REAL

Fecha / Data:	2018/05/08
Hora / Ordua:	18:30
Lugar / Kokalekua:	Arrosadiako Civivoxa
Concejala de barrio / Auzo-zinegotzia:	Javier Leoz
Participantes / Parte-hartzaileak:	20 emakume eta 5 gizon
Otros / Bertze batzuk:	HJPBren egilea
Moderadora / Moderatzailea:	Partaidetzako teknikaria: Elian Peña Dinamizazio Komunitarioko Zerbitzua: Sergio Espinosa eta Maitane Urmeneta

Apertura / Hasiera

Elian Peña Herritarren Partaidetza eta Gizarte Ahalduentzako Alorreko teknikariak ongi etorria eman die bertaratuei, eta eskertu die Lezkairuko eta Andre Maria Erreginak 2018ko lehen eztabaidagunera etorri izana. Jakinarazi du ezen eztabaidagunean, administrazioaren eta herritarren arteko partaidetzarako eta elkarriketarako esparru bat eskaintzeaz gain, ontzi bat egongo dela udalari edozein gorabehera, zalantza, proposamen edo zorientze ere helarazteko.

Jarraian, azaldu du zer dinamika erabiliko den auzo-eztabaidaguneen formatu berrian.


El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du

Lehenbizi, Javier Leoz auzo-zinegotziak hitza hartu du, eta sarrera labur bat egin du bertaratuei etorri izana eskertzeko, eta hasiera eman dio taldekako lan-dinamikari. Jarraian, zinegotziak zehaztu du zer obra eta hobekuntza egin diren Andre Maria Erregina auzoan aurreko auzo-eztabaidagunetik, eta zer jarduketa dagoen aurreikusita:

- José Vilako jolas-patioa birmoldatzea.
- Andre Maria Erreginak auzo-lokala: obrak egin dira 2018an zehar.
- Mutiloabeiti kaleko eta Monjardin Zeharkalearen luzapeneko plaza urbanizatzea, eta autoen zirkulazioa aldatzea.
- Katalunia etorbideko eskaileraren ondoko berdeguneak ureztatzea.
- Mutiloa kalearen atzealdea, eskatu dute plaza berriz urbanizatzea.



- Arrosadiako kiroldegiko obrak: udan zehar egitekoak dira.
- Antzinako patinodromoa: aurreikusita dago birmoldatzea, eta horretarako iradokizunak onartzen dira.
- Ori mendiaren kaleko eskaileretako arrapala ezin da egin, ez baitago lekurik.
- Tenis Klubaren atzealdeko orubea: enkante judizialaren zain.



Halaber, zinegotziak errepasatu ditu Lezkairu auzoko hobekuntzak:

- Maravillas Lamberto plaza zentrala inauguratu da.
- Zalduko kaleko etxeen ondoko magala egokitzea.
- Pilotalekua: aztertzen ari dira instalazioaren zati bat estaltzeko aukera.
- Kaleen izena jartzen duten plakak: amaituta.
- Adela Bazoko oinezkoen pasabidearen argiztapena: amaituta.
- Futbol zelaiaren harmaila estaltzea: egiteko.
- Txakurrentzako aisiarako eremua: bilatzen ari dira non kokatu.
- Aparkalekuetako marrak berriz margotzea: egiteko.
- Ez da oraingoz aurreikusi eremu estali bat egitea.
- Mendillorrekiko zuzeneko lotura: zailtasunak daude, lursailen jabetza dela eta.
- Aurreikusita dago haur-eskola eta ikastetxe publikoa 2020-2021 ikasturterako abian jartzea.



Ondoren, Javier Leozek azaldu du zer erreforma egin dituzten auzolanean Lezkairu Kultura Elkarteak eta Lezkairuko GEZKeko auzoko bertze elkarte batzuek; gastuen zati bat ordaindu du udalak. Erran du zer jarduera egin diren 2018an oraingo (martxoan hasi ziren ikastaroak eta lantegiak) eta zer ari diren egiten orain, eta bertaratutako guztien eskura utzi ditu izena emateko argibideak, eta gogorarazi die auzoko bestak 2018ko urriaren 12, 13 eta 14an izango direla.

Lezkairuko auzo-elkarteko Jose eta 'Vivir en Lezkairu' blogeko Yolanda aurkeztu dituzte; horiek blogaren aurkezpena egin dute, eta azaldu dute nola funtzionatzen duen auzo-elkarteak; halaber, azaldu dute nola koordinatzen diren, auzoko kexak eta iradokizunak bideratzeko. Dei egin dute Lezkairuko auzotar gehiagok parte hartzera, eta Andre Maria Erreginakoa auzo-elkartea ere gonbidatu dute denok elkarrekin lan egiteko.

Javier Leozek gomendatu die koordinatzea programatu behar dituzten jarduerak aurreikusteko, kontuan izanda Andre Maria Erreginakoa etorkizuneko auzo-lokala.

El Ayuntamiento escucha / Udalak entzuten du

Bertaratuei hitza eman zaie, batera jartzeko:

- Javier (Lezkairuko auzotarra): iradoki du 22. villavesaren maiztasuna berraztertzea.

Zinegotziak iradokizuna jaso, eta helarazi egingo du. Gogorarazi du horrelako proposamenak arestian jaso zirela Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planean.

- Jesús (Andre Maria Erreginakoa): Taxoare kaleko nabeak eraistea, eta gaueko villavesa.

Jakinarazi zaio bigarren proposamena Mankomunitateari helarazi zaiola, eta Taxoare eta Sadar kaleetako nabeak eraistearen eskaera izapidetu eta onetsi dutela udalaren osoko bilkuran, eta horretarako diru-partida bat bideratu dela; dena den, ez da segurua laster egingo ote den.

- Vitori (Andre Maria Erreginakoa): Pozik dago Lezkairuko GEZKren funtzionamenduarekin, baina eskatu ditu bere auzorako lokalak, eta Mutiloabeiti kaleko plaza egokitzea adineko pertsoneri begira, ez baitago zuhaitzik udan itzala emateko. Adierazi du uste duela auzotarrak utzita, abandonatuta, sentitzen direla.
- Pili (Andre Maria Erreginakoa): azaldu du iruditzen zaiola Civivoxaren instalazioa eskasa dela eta ez dela behar bertze erabiltzen, ezta Arrosadiako liburutegia ere.

Javier Leozek erantzun dio Lezkairu auzorako aurreikusi diren hobekuntzak Andre Maria Erreginakoa biztanleek ere erabiltzekoak direla (ikastetxea eta haur eskola, kasu) eta ezin dela espero izan Civivox moduko instalazio bat auzo bakoitzean edukitzea, areago kontuan hartuta auzoko biztanle-kopuru txikiak baldintzatu egiten dituela zuzkidura publikoak.



HJPB (Hiri Jarduketako Plan Berezia)

Elianen sarrera eta Sigifredoren azalpena



HJPBren (Hiri Jarduketako Plan Bereziaren) aurkezpena egin ondoren, parte-hartzaileek ekarpenak egin dituzte, bakoitzak auzoaz duen ikuspegiaren arabera, planaren lehenbiziko zirriborroa aberaste aldera.

Hiri Jarduketako Plan Berezia azaldu du; haren barruan partaidetza publikoko plan bat dago, auzotarren iritzia kontuan hartzeko eta txertatzeko.

Orain, HJPB lehen fasean dago, eta 2018ko irailean bigarren fasea hasiko da: aurreproiektua idaztea. Fase hori biziki garrantzitsua da horrelako plan batean, hiria berroneratzeko diseinatua, eta ez hiria zabaltzea aurreikusten duen ikuspegi batetik.

Bertaratuak planaren egilearekin solastatu dira:

- Marga (Andre Maria Erreginakoa): Sigifredok aurkeztutakoaren bestelako ikuspegi bat planteatu du; Lezkairuko plangintzak areagotu egin zuen auzoaren bazterketa, eta José Vila ikastetxea ixteak bizia kendu zion auzoari. Auzoko auzo-elkarteak eskatu du Tennis Klubaren ondoko orubean jartzea etorkizuneko liburutegi publikoa.

Halaber, erran du Katalunia etorbideko zirkulazioa arazo bat dela auzoarentzat, zaratagatik zein kutsaduragatik.

Beraren ustez, auzoaren errealitatea ongi eboluzionatzen ari da, Lezkairuko etxebizitzaren prezio handiak biztanle gazte gehiago erakartzen dituelako Andre Maria Erreginari.


- Jesús (Andre Maria Erreginakoa): galdetu du Lezkairuko orubeetan jartzea

aurreikusten den osasun-zentroari buruz.

Zinegotziak bertaratuei galdetu die ea beharrezko deritzoten Andre Maria Erregina auzoan barna oinezkoentzako ardatz bat egiteari, eta Sigifredok gehitu du duindu behar direla ordenamendutik kanpoko espazio libreak, eta aipatu du Mutiloabeiti kaleko plazan egindako jarduketa. Nabarmendu du xehetasunez aztertu behar dela kaleak oinezkoentzako bihurtzea, zaila baita hori autoen zirkulazioarekin bateragarri egitea.

Auzotarrek ekarpenak eta oharrak egin dituzte:

- Vitori (Andre Maria Erreginakoa): bizikidetza-arazoak bizikletekin.
- Pili (Andre Maria Erreginakoa): oinezkoek errepidea ikusteko arazoak dituzte Taxoare kalean, edukiontzien erruz.
- Marga (Andre Maria Erreginakoa): Auzoan hasia da nabaritzen aparkaleku-falta. Gaueko vilavesari dagokionez, aldaketak eskatu zaizkio mankomunitateari.
- Mutiloa kaleko bizilagun bat (Andre Maria Erreginakoa):galdetu du bere kalean egindako egokitzapenari buruz, eta eskatu du atsegin egiteko kalea mugatzen duen Tenis Klubaren horma, zuhaitzak jarriz, landareak...; jarduketa hori aspaldi eskatu zuen auzo-elkarteak.
- Taxoare eta Ori mendiaren kalean autobus-geralekua jartzea, Eroskiren parean.



PROPOSAMENAK ETA IRADOKIZUNAK

- Bertaratuek aretoaren sarreran jarritako kutxan sartutako iradokizunak, gorabeherak, kexak eta erreklamazioak:
 - Zabuak eta saski-baloiko saskiak jartzea Andre Maria Erreginako pistan (alvardepamplona@outlook.com),
- 'Vivir en Lezkairu' blogean jasotako iradokizunak, gorabeherak, kexak eta



erreklamazioak:

- Bidegorrian edo aparkaleku ez den kalearen zati batean (espaloiarene eremu gorria) aparkatutako autoak.
- Francisco Berlanga Robles eta Isabel Garbayo kaleak gaizki jarrita daude Google Maps-en. Konpontzen ahal da?
- Iragarki-taula bat jartzea erdialdean.
- Txakur-aisialdirako gune bat behar da.
- Ez dago motorrentzako aparkalekurik, eta, horrenbestez, espaloietan aparkatzen dituzte.
- Orubeak abandonatuta daude: zaborrez beteta daude, eta kaleak hartu eta espaloitik ibiltzea eragozten duten landarez beteta.
- Joan Paulo II.aren etorbidearen aldapa: irisgarritasuna.

Cierre / Amaiera

Amaitzeko, interesa duten lagunak gonbidatu dituzte HJPBren inguruan abiaraziko den prozesuan parte hartzera. Halaber, zinegotziak bertaratuei eskertu die etorri izana eta aktiboki parte hartu izana, eta proposatu die horrelako elkarguneetan parte hartzen jarraitzeko.